

# Fermin Muguruza

- Musikaria •

## «*Bidaia liburu baten gisakoa da diskoa, lagun, toki eta hizkuntza askorekin*»

«Brigadistak Sound System» izenburua eramango duen diskoari azken ukituak ematen ari zaizkio Fermin Muguruza. EEBBetan, Kuban, Hego Amerikan eta Europan grabatu du, tokian tokiko kolaboratzaileekin, eta maiatzaren 28an kaleratuko da. Ekainean eszenatokietara itzuliko da Erromako, Parisko eta Euskal Herriko musikariek osaturiko banda berri batekin.

ESAN OZENKI-KO bulegoan hartu gaitu Fermin Muguruzak. Neguaren azken arrastoek ahul samar utzi dute osasunez. «Nire asmak ezin du neguarekin», dio.

### **n Nola dago diskoa?**

Ostegunean Azkarate estudioan sartu nintzen, eta oraindik beste hiru aste beharko ditut, sistema ezberdin askorekin grabatu dudalako eta orain egokitu behar ditut hemengo sistemetara. Ahots guztiak Azkaraten grabatuko ditut, tinbre eta ekualizazio berdintsua izateko, eta gero nahasketak falta zaizkit. Lan neketsua izango da, zenbait pistetan baitaude jendeak libre moduan grabaturiko gauzak eta horiek garbitu behar dira.

Ia-ia bukatuta dago grabaketa. Zenbait gonbidatu falta dira. Grabaketa urtarrilean hasi nuen, Habanan eta Caracasen; otsailean Los Angelesen, Madrilan eta Parisen grabatu nuen; martxoan, Bartzelonan eta Buenos Airesen, eta apirilean Erroman.

### **n Zer dela eta horrelako disko berezia?**

Disko honen zirriborroa iazko biran, *Ireki ateak* biran hasi nintzen lantzen. Leku askotara joan ginen, eta lagun zaharrekin eta beste zenbait taldeekin berriro elkartzeko aukera izan nuen. Melodia eta hitz asko neuzkan buruan, bira batean denbora izaten baitut ikusten ditudan gauzei buruz idazteko edo apunteak hartzeko.

Bira bukatu eta gero, zenbait maketa prestatu nituen, disko ireki bat lantzeko, nik deitzen diodan bezala. Aurretik noizbait aipatu izan dut gustukoa izango nuela disko bat egitea bidai liburu bat izango balitz bezala. Horretarako egokiago zen tokian tokiko musikariekin lan egitea eta bertako estudioetan grabatzea.

### **n Dударik gabe, koordinazio lan handia eskatuko zizun horrek.**

Bai, konplexua izan da. Maketak grabatu ondoren, talde bakoitzaren ezaugarrien arabera banatu nituen kantuak eta haiekin lanean hasi nintzen. Jendearen jarrera zoragarria izan da, teknikariena zein musikariena, ilusio handia jarri dute, eta horrek erraztu du dena. Oso aberasgarria izan da.

### **n Nola izan da kantuen prestakuntza prozesua?**

Maketa batean kantua bidaltzen nion taldeari, eta nik proposatzen nien beraiek ere ekarpenak egitea, beren ukitua ematea. Kolaborazioetarako normalean abeslariak izaten dira gonbidatuak; hemen, berriz, musikariak. Normalean, denbora baldin bazegoen, haiek bidaltzen zidaten zinta bat asmatzen zutenarekin: moldaketak, zati berriak... Orduan, toki bakoitzean egun oso bat hartzen genuen estudioan entseiatzeko, hor kantua zehazten genuen, eta hurrengo egunean grabatu. Zenbait tokitan jendeak hitzak gehitu dizkio kantuari: ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz, kurdueraz, maputxez, dakotaz... Horrek ematen du disko irekia izatearen ideia: musikari asko, hizkuntza asko...

### **n Zer jendek hartu du parte diskoan?**

Hamahiru kantu izango ditu diskoak, azken orduko *remix*-en bat ez badago behintzat. Habanan Van Van taldeko Samuel Formell bateria joleak *combo* berezi bat osatu zuen disko honetarako, Van Vaneko hiru kiderekin eta La Timba Cubanako beste hiru musikarirekin.

Caracasen lan egin nuen Desorden Publico taldearekin. Hechos Contra el Decororekin beste kantu bat osatu dut. Txantxetan beti esaten zidaten ea noizbait aterako nuen Fermin Muguruza eta Hechos Contra el Decororen diskoa. Xabi Peryrekin ere kantu bat prestatu nuen, Mitch hurakanak kaltetuen alde atera zen disko baterako, eta disko honetan ere sartuko da. Los Angelesen Tijuana No-rekin grabatu nuen.

Beste kantu bat Mikel Abrego eta nire anaia Iñigorekin egin nuen, eta Los Angelesera eraman nuen. Han bertan Sublime taldeko haize atalak eta Fishbone taldeko Angelo Moore saxofoi joleak ahotsak eta moldaketak sartu zituzten. Aztlan Underground taldearekin ere kantu bat egin nuen Los Angelesen, dakotaz abesten duen neska batek hartzen du parte. Han ezagutu nuen, estudiora etorri zen eta melodia berezi bat sartu zuen. Los Angelesen jende asko hurbiltzen zen estudiora bisitan.

Bertsio bat dago diskoan, Toots & The Maytals-en *54-46* kantua. Todos Tus Muertos eta Lumumbarekin gelditu nintzen egiteko. Parisen Spartacus Dub International taldearekin eta

P-18 taldearekin kantu bana prestatu ditugu. Erroman, Radici Nel Cementorekin grabatu dut, eta Banda Bassottiko Picciok eta Castro X *raper*-ak abestu dute.

Bestetik, Manu Chaok beti esaten zidan Bartzelonan duen estudiora joateko, eta azkenean ere kantu bat egin dugu. Urtarrilean Actual jaialdian izan ginen biok, eta bueltan lagundu ninduen Txantrea. Bidaia osoa gitarra jotzen eman zuen autoan, kantuak sortzen, inprobisatzen... Txantreako plazan gitarra atera zuen eta Clandestino disko osoa jo zuen, Mano Negraren ez dakit zenbat kantu, eta beste hiruzpalau asmatu zituen. Zerbait egiteko ideia hasieratik sortu zen. Berak egin du musika, eta nik hitza.

### **n Reggae-a da diskoaren ardatza, baina bere aldaera guztietan, ezta?**

Reggae-a konstante bat izan da nire lan guztietan. Gaur egun reggae-ak sekulako bilakaera izan du, adar ugari ditu, *roots*-etik *drum 'n' bass*-eraino: *rock-steady*, raggamuffin... Diskoan talde bakoitzak bere ukitua eman dio. Kuban, kasu, reggae hori latinizatu egin da; Los Angelesen, hip hop aldera jo...

Kantu batean oso gauza berezia gertatu da. Joseba Sarrionandiaren gutun bat jaso nuen, non testu bat musikatzeko gonbidapena egiten zidan. *Eguraldi lainotsua hiriburuan* da kantua, eta Spartacus Dub Internationalekin grabatu dut. Oso pozgarria eta hunkigarria izan da niretzat. Oso kantu berezia da.

### **n Euskal Herrian sorturiko giro berria hizpide duzu kanturen batean?**

Ez. Kantu batean esaten dudana da gauza bat: «Saiatu nintzen herria ordezkatzeko duen harria jasotzen, saiatu eta ezin, gehiegi pertsona bakar batentzat».

### **n Prentsa artikulu batean tregua eskatu zenion ETari. Orain badago. Zer balorazio egiten duzu sei hilabete hauetaz?**

Bagoaz justu nik eta beste askok proposatzen genuen bidetik, eta interesgarria iruditzen zait, horrek dakartzan kontraesan guztiekin, eta zenbait kasutan despiste ideologikoekin. Gogorra delako jende askorentzat, ni neu barne, Atutxarekin batera joatea manifestazio batean, baina iruditzen zait aurrean duguna izugarri interesgarria dela. Oraindik, hala eta guztiz ere, uste dut ez dela sentitzen garai garrantzitsu batean gaudela. Argazki bat ikusten da, eta argazkiaren atzean zer ote dagoen galdetu behar diogu geure buruari.

Gehienbat nik ezkeraren aldetik ikusten dut prozesua. Baliteke oraindik zenbait gai nazio aldetik oso garbi ikustea eta justizia sozialaren ingurukoak bigarren mailan uztea. Horretan egundoko lana egin behar da. Gauza batzuk egin dira: HB Batzarrarekin elkartzeari Nafarroan eta EAEn Zutikekin oso garrantzitsua da. Eta Ezker Batuarekin ere lan asko egin behar da, jende hori baita ikuspegi sozial zerbait progresista duen bakarra.

Oso bide interesgarrian goaz eta horrek urduri jartzen ditu estatuak. Egiten ari diren astakeriek deskalifikatu egiten dituzte, eta agerian geratzen ari da ezartzen duten injustizia. Argumentu gehiago ematen dizkigute.

### **n Arriskuan ikusi duzu prozesua?**

Kolokan ez dut ikusi. Ikusi dut kolpe asko jasotzen ari garela. Hemen ere kolpe handia jaso genuen Kashbadeko baxu jole Gorka atxilotu zutenean. Berdin azken torturak eta Gerestaren heriotza. Gerestaren anaiak hiletan esandako hitzak entzun nituenean hunkitu ninduten: enborra moztu dute baina sustriak hemen daude.

Buru hotzez jokatu behar da. Kale borrokaren inguruko istorioak izugarri anplifikatzen ari dira, eta beraiek egurra ematen ari dira leku guztietan eta ez da inon azaltzen. Txantrea, kasu, auzo okupatu bat da. Baina jendea konturatzen ari da gauza asko ditugu lortzeko bide onetik.

Lan asko geratzen da egiteko. Nahiko nuke jendeak topo egingo duen egitura berriak sortzea, auzoetan eta abar. Unea da horretan lan bat egiten joateko.

Bestetik, uste dut Euskal Herritarrok-ek izena aldatu behar duela lehenbailehen, kapitalizatzen ari delako jende askok beretzat sentitzen dituen siglak. EH da Euskal Herria, eta Euskal Herriak ideia eta kontzeptu bezala batzen gaitu jende asko. Hautes-elkarte batek ezin du hori lapurtu.

*Jon Eskisabel*

IRUN

---